



Esp. kodea: 2014SAPL0008

Gaia: 2014/07/01 Plenoa

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2014ko uztailaren 1a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- 2014KO EKAINAREN 3KO BILKURARI DAGOKION AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko ekainaren 3an egindako bilkuraren akta onartu du

2.- EUSKO JAURLARITZAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA EGITEA, AGIRIEN ERREGISTRO BATERATUA EZARTZEKO (2014PBAJ0003)

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du Eusko Jaurlaritzarekin Lankidetzaren Hitzarmena egitea, EAEren eta haren mendeko diren zuzenbide publikoko entitateen administrazioarentzat diren eskabideak, idatziak eta komunikazioak Arrasateko Udaleko erregistroan aurkeztu ahal daitezen.

3.- UDALAREN ÍUDALHITZÍ HITZARMENEAN JASOTAKO 96.BIS ARTIKULUA (SUSTATUTAKO BORONDATEZKO BAJAK) EGOKITZEKO PROPOSAMENA (2010PLHI0001)

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du udal honetako funtzionarioen lan baldintzak erregulatzen dituen Udalhitz akordioaren testuko 96.bis artikulua aldatzea.

4.- LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA PUNTUALA (2014PRPT0001)

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du zati baten aldatzea Lanpostuen Zerrenda, eta horren ondorioz, 33 zenbakiko kodeko lanpostuari atal hauetan aldaketak ezartzea: izena, egitekoak, titulazio baldintzak eta dedikazioa.

5.- MOZIOA, ELA SINDIKATUAK AURKEZTUTAKOA, UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKOA (2014SMOZ0014)

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du ELA sindikatuak aurkeztutako mozioa onartzea, udaltzaingoaren aurre-jubilazioari buruzkoa.



Esp. kodea: 2014SAPL0008

Gaia: 2014/07/01 Plenoa

6.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA AUTOKONPOSTAJEA ETA AUZOKONPOSTAJEA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZARI (2013IHON0001)

Udal Plenoak, bilkurara 18 zinegotzi bertararu direlarik, 14 aldeko botorekin (10 BILDU, 3 PSE-EE eta 1 ARALAR), eta 4 aurkako botorekin (4 EAJ-PNV), erabaki du hasierako onespena ematea Autokonpostajea eta Auzokonpostajea arautzeko Udal Ordenantzari. Orain, ordenantza 30 eguneko epean jendaurrean izango da, interesatuek nahi dituzten iradokizun zein alegazioak egin ahal ditzaten.

7.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal Plenoak Alkateak emandako ebazpenen berri hartu du (2014ko ekainaren 3tik gaurko bilkura honen deialdia egiteko egunera bitartekoak).

Arrasaten, 2014ko uztailaren 2an

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga